

ORDENANTZA, UDALERRIKO AUZOBIDEEN ETA MENDIKO PISTA ZEIN BIDEEN ERABILERA, BAITA ERORITAKO ARBOLEN APROBETXAMENDUA ERE, ARAUTZEN DITUENA

2009.eko apirilaren 27ko 50. NAOn argitaratua

Olaztiko herribide publikoen sarea olaztiar guztien ondarearen zati da. Berebiziko garrantzia du udal mugapeko mendi eta landetako aberastasuna zaintzeko eta hartara sarbide izateko. Funtsezkoa da herritarren arteko komunikaziorako eta bisitarien nahiz pasadizokoen harat-honatak errazteko. Ongi zaindurik egoteak herritar guztiei egiten die on.

Herriko pista eta bide publikoak gero eta gehiago erabiltzen baitira, beharrezkoa da haien erabilera arautzea. Xedea hirukoitza da: Olaztiko natur ondarea zaintzea, erabiltzaile guztiek eta bereziki bizilagunek modu orekatuan erabiltzea eta erabiltzeko egoera onean mantentzea.

Orobat, beharrezkoa da arrazoi naturalak direla-eta denboraren poderioz erortzen diren arboletan erabilera zuzena.

Helburua horixe dela, Olaztiko Udalak ordenantza hau onetsi du:

1. artikulua. Ordenantzaren xedea.

Ordenantza honek, indarra duen araudiarekin bat, Olaztiko udal mugapeko mendiko bide publikoen sarearen erabilera arautzen du, baita arrazoi naturalak direla-eta denboraren poderioz erortzen diren arboletan erabilera zuzena ere.

2. artikulua. Mendiko bideen kategoriak.

Erabilera nagusia zein duten, Olaztiko mendiko bide publikoak kategoria hauetan sailkatzen dira:

1.-2 metro zabal edo zabalagoak diren bideak.

Ondoko laukian laburtzen da egungo bideen sarea, Altzania mendikoa nahiz Bargea mendikoa.

Mendia	Pista mota	Izena	Luzera (m.l.)
	Errepidea	Urdalur	1050
	Nagusia	Zapardegia	7560
Altzania	Bigarren mailakoa	Auntzetxe-Arrilegun	1990

Mendia	Pista mota	Izena	Luzera (m.l.)
	Oihangintzako pista	Sagarminsaroi-Muskilin	2200
		Sarasako Lohia	1470
		Txerrimendi-Adarroiz	2070
		Zapardegia	1555
		Sasartea	3120
	Bidezidorrak		52404
	Abeltzaintzarakoak		2046
	Atal hau, guztira		75465
	Errepidea	Altsasu-Urbasa	2020
		Olazti-Lizarra	5500
	Bidezidorrak		
	Abeltzaintzarakoak		18190
	Atal hau, guztira		25710
Bargea	GUZTIRA		101175

a) Auzobideak: horrela sailkatu dira herriko baserri multzo bakoitzera joateko bide nagusiak. Asko erabiltzen diren bideak dira eta horregatik zoru irmoa, agregakinak, asfaltoa edo hormigoia dute.

b) Abeltzaintzarako bide azpiegitura: Olaztik lurzati berrantolamenduko bide sare osoa eta usua du, atal honetan sartzen dena.

Orobat, abeltzaintzarako dira, edo halakotzat hartu dira, borda eta baserrietara sarbide ematen duten pistak, auzoko bide nagusiak ez direnean.

Azienda bazkatzera eramateko baizik ez dira erabiltzen Andiko eta Bargeko soilguneetarako abeltzaintzarako bideak; labur samarrak dira gehienbat eta estaldurarik gabeak.

c) Mendi bide nagusiak: garraiorako azpiegitura gehiena haietan bermatzen da. Orokorrean, haien egoera ona edo oso ona da, luzerako nahiz zeharkako drainatzeak dituzte, baita, zati gehienetan, zoru malgua (agregakinak) edo zurruna (asfaltoa edo hormigoia) ere.

d) Bigarren mailako mendi bideak: maila txikiagoan egiten dute zerbitzu, eta haien kalitatea aurrekoak baino kaskarragoa da; drainatze lanak dituzte, baina gehienetan zoru irmorik ez.

e) Oihangintzako bideak: basotik oihangintzako produktuak ateratzea dute xede, eta haien egoera halamoduzkoa izan ohi da, nahiz eta zenbait puntutan zirkulazioa baldintzaturik dagoen. Fabrikako obrak izan ditzakete baina zoru irmorik ez dute.

Halako tarte franko dago, gehienetan mendi bide nagusietatik, abeltzaintzarako bideetatik edo are errepideetatik ateratzen direnak.

f) Kale edo bidezidorrak: denbora baterako irekidurak dira, halako lote bateko oihangintzako produktuak ateratzeko direnak. Ez dute fabrikako obrarik ez zoru irmorik izaten, eta sarrera mugatua izan ohi dute, oihangintzarako traktoreentzat bakarrik.

Mendi guztian barrena daude gisa honetako bidezidorrak, hondatu samarrak, gehienetan. Alde urrunenak eta iristen zailenak dira halakorik ez duten bakarrak, hala nola Soromearretako erreka bazter batzuetan.

2.-Bide meharrak, 2 metro zabal baino estuago direnak.

a) Bideak, orgabide zaharrak eta bidexkak, erabilera eta eginkizun bat baino gehiago dutenak, lasterbideak eta turismorako bidexkak barne.

3. artikulua. Kontserbazioa.

Olaztiko Udalak zainduko du 2.1 ataletan zehazten diren mendiko bide publikoak beti egon daitezen erabiltzeko maneran. Horretaz gain, behar diren neurriak hartuko ditu gal ez daitezen interesgarritzat jotzen diren bestelako bideak (besteen adar direnak, bidexkak).

4. artikulua. Ibilgailu motordunetan ibiltzeko debeku orokorra.

Debeku da ibilgailu motordunetan ibiltzea Olaztiko udal mugapeko mendi pista guztietan, horretarako baimena izan ezik.

5. artikulua. Baimenak. Eskumena 2009.EKO AZAROAREN 16AN ALDATUA, 141. BOLETINA

-Ordenantzaren 5. artikulua gisa honetara geldituko da idatzirik:

"Mendi pistetan ibiltzeko Udalaren baimena lortu beharko da alde zuzenetik; hura emateko eskumena Alkatetzari dagokio.

Baimen edo sarrera hori honako hauek eskura dezakete:

1.-Udalerrian erroldaturiko bizilagunak.

2.-Udalerriko Ehiztari Elkarteko kideak.

Baimen edo sarrera hori iraunkorra izanen da eta Udalak urtero berrikusiko du, Udalak besterik gabe ezeztatuko baititu aurreko bi kasuetan aipatu diren baldintzak betetzeari utzi dioten pertsonen emandako baimenak.

Sarrera horiekin batera ibilgailuaren matrikula zenbakia paratu beharko da.

Orobat, sarrerak baimendu ahal izanen dira Udalaren ibilgailuen edo Udal honendako lan egiten duten pertsona edo enpresen joan-etorrietarako, bai modu iraunkorrean bai aldi baterako".

6. artikulua. Udalaren erregistroko zenbakia agertuko da sarrera guztietan. BALIOGABETUA 2009.EKO AZAROAREN 16AN, 141. BOLETINA

7. artikulua. Pistetan ibiltzeko baimena. Eskumena. BALIOGABETUA 2009.EKO AZAROAREN 16AN, 141. BOLETINA

8. artikulua. Baimena, ardatz bakoitzeko 3,5 tona baino gehiagorako ibilgailuetarako.

3,5 tonatik gorako ibilgailu guztiek baimen espresua beharko dute Olaztiko herribide publiko guztietan barrena ibiltzeko.

9. artikulua. Garraioa, zura ateratzeko aprobetxamendu pribatuetako.

Mendi pribatuetako zur aprobetxamenduetarako betebeharrak eta kargak dagokion ordenantza fiskalean ezarriko dira.

10. artikulua. Entitate publikoen erabilera.

Erakunde eta entitate publikoetako ibilgailuek ez dute baimenik behar, beren eginkizunetan ari direnean.

11. artikulua. Ibiltzeko gehieneko abiadura.

Olaztiko mendiko pista guztietan gehieneko abiadura 25 kilometro/ordua izanen da.

12. artikulua. Pisten egoerari eta inguruabarrei dagokien abiadura.

Istripurako arriskuak apaltzeko, eta oinezko, txirrindulari eta animaliei trabarik ez egiteko, gidariek beren abiadura egokitu beharko dute, maldetan eta toki arriskutsuetan behar adina mantsotuz, baita azientak hurbil dabiltzanean eta oinezkoak agertzean ere, edo denbora idorra denean, pistetan hautsa pilatzen baita.

13. artikulua. Jarduera debekatuak.

Lehiaketak, lasterketak eta taldeka eta ibilgailu motordunetan antolatzen diren turismo jarduerak espresuki debekaturik gelditu dira, hala nola pasealariei, txirrindulariei, etxeko animaliei eta basa-faunari arriskua ekartzen ahal dieten gidatze molde arriskutsu guztiak. Salbuespen gisa, Udalak baimena ematen ahalko du taldean antolatzen diren ibilgailu motordunen lehiaketa ofizialak eta jarduera turistikoak egiteko.

14. artikulua. Erabiltzaileen erantzukizuna.

Bide eta pisten erabiltzaileek beren gain izanen dute ordenantza honetan aipatzen diren arauak ez betetzeagatik pistetan egiten dituzten kalteen erantzukizuna.

15. artikulua. Bide eta pisten inbentarioa eta sailkapena.

Olaztiko hermendia antolatzeko Udalak 2008an onetsi zuen proiektuan jasorik daude.

16. artikulua. Arau-hausteak.

Ordenantza honetan ezarritakoa ez betetzea, nolana hikoia izanik ere, arau-haustetzat hartuko da.

17. artikulua. Zehapenak.

Ordenantza honi eginiko arau-hausteengatik, isunen zenbatekoak ez du gaindituko Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen 52. artikuluan ezarritakoa.

Nork bere borondatez ordaintzen ez badu, premiamendu bidez egingen da isunen diru-bilketa.

18. artikulua. Herrilurretan eroritako arbolen aprobetxamendua

Udalak markatuko ditu herrilurretako arbolak, edozein arrazoi dela-eta urte barrenean lurrera erortzen badira, eta Udalak etxeko egurrarekin egiten duen enkanterako izanen dira; beraz, egiten den enkantearen prozeduratik kanpora ezin izanen zaizkio inolako bizilagun partikularri erreserbatu, ezta haien aprobetxamendua inori esleitu ere.

Horren ondorioz, partikularrek ezin izanen dute herrilurretako egurraz baliatu, Udalak horretarako markaturiko datatik kanpora.